

## “BIDEGORRIAK EUSKARARENTZAT” ULMAN

Dakizuen moduan, martxan dago “Bidegorriak Euskararentzat” egitasmoa, ULMAko Motibazio Taldeak ULMA Fundazioarekin lankidetzan antolatu duena. Egitasmoa ia urte osokoa da eta 3 fasetan dago banatuta.

### 1 “NOR BAGARA”: Hizkuntza ekologiaren dekalogoia eta hizkuntzen lehiaketa

Hizkuntza Ekologiaren Dekalogoia ezagutzera eman dugu ULMA osoan eta, segidan, hizkuntzei buruzko Lehiaketa antolatu dugu. Bi ekintzen helburua izan da ULMAko kolektiboarekin “Bidegorriak euskararentzat” egitasmoaren balioak konpartitzea, eta oso harrera ona izan du (ia 600 parte-hartzaile). Mila esker, denoi!

#### BIDEGORRIAK EUSKARARENTZAT

##### HIZKUNTZA EKOLOGIAREN DEKALOGOIA

**8 EUSKARAREN BIZIRAUPENERAKO ARNASGUNEAK BEHARREZKOAK DIRA ETA ULMAN EKARPEN HANDIA EGIN DEZAKE**

Oñati, Otxandio... arnasmuneak dira euskararentzat. Arnasmuneak nagusiki euskaldunetz osatutako guneak dira; euskara da hizkuntza nagusia, eta normalena euskara erabiltzea da. Oñati eta Otxandio Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kide dira, eta UEMAren helburua arnasmuneak sendotzea da. Hizkuntzen biziraupena ziurtatzeko, beharrezkoak dira arnasmuneak; zaindu eta babestu beharrezkoak dira. ULMARI eta bazkide-langileoi Gizarte Erantzukizunetz jokatzeari dagokigu, eta jardun sozioenpresarialean arnasmune horiek elikatzea dagokigu, lanean ere euskara erabiliz.



ULMA Fundazioa      ULMAko Motibazio Taldea

#### GALDERA-ERANTZUNEN LEHIAKETAREN IRABAZLEAK:

**EREINDAJAN SASKIAK:** *Zorionak gure irabazleei eta eskerririk asko beste 557 kideoi!*

 Jon Ander Madina ULMA Construcción	 Zaira Lopez ULMA Ogi Jaaskizleak	 Hizari Korpeta ULMA Taldea	 Joseba Aizkorre ULMA Packaging	 Aitor Etxeberria ULMA Architectural
 Julen Herremoren ordez Tamara Rufaz ULMA Laskan Furgon	 Julen Arriaga ULMA Embedder	 Joseba Arrese ULMA Conveyor	 Aritz Laiti ULMA Piping	 Irene Agirretxe ULMA Handling

**ASTE BURUKO EGONALDIA:**



ULMA Packagingeko Fernando Zabala, Raul Garcia ULMA Fundazioako lehendakariaren eskutik sarria jasotzen

ULMA Fundazioa      ULMAko Motibazio Taldea

### 2 “EUSKARA ALA EZ GARA”: Euskararen muralak

Uztailean zehar, “Euskararen Muralak” izeneko ekimena jarriko dugu martxan. Helburua da gutako bakoitzak euskararekiko konpromisoak, sentipenak... adieraztea ULMAko negozioetan jarriko ditugun muraletan. Muralen alboan, hosto itxurako post-it modukoak jarriko ditugu, norberak nahi duena idatziz adierazteko. Irailaren 23an, Oñatiko plazara eramango ditugu muralak.

Idatzi, marraztu, adierazi... nahi duzuna!



Euskararen Muralen diseinua

### 3 "EUSKARA PLAZARA": Oñatiko ikastetxeetan ULMA ezagutzera eman, ULMAtik bidegorrian zehar Oñatiko plazaraino, plazako jaialdia eta Kalakan taldearen kontzertua

IRAILAK 12-16

ULMA n erreferenteak diren pertsonak Oñatiko ikastetxeetara joango dira, 11-12 urteko haurrei ULMA ezagutzera emateko eta euskararen normalizazioari egiten dion ekarpena azaltzeko. Horren ostean, ULMA marrazki bidez irudikatzen eskatuko zaie lantaldeka. Eta irailaren 23an, marrazki horiek ULMAko Euskararen Muralekin batera jarriko dira Oñatiko plazan.

IRAILAK 23

- 16:30** Denok elkarrekin bidegorrian zehar Oñatiko plazaraino.
- 18:30** Oñatiko plazan muralen erakustaldia. Herritarrek ere muraletan idazteko aukera edukiko dute.
- 18:40** Ekitaldia.
- 19:00** Amaia Txintxurretarekin musika eta dantza.
- 21:00** Plazako jaialdiaren amaiera.
- 22:00** Kalakan musika taldearen kontzertua.

